

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

14689 *1/2017 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Zinpekoen Epaimahaiaren maiatzaren 22ko 5/1995 Lege Organikoa aldatzen duena, desgaitasuna duten pertsonen bazterketarik gabe parte har dezaten bermatzeko.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala.

ATARIKOA

Espainiako estatuak tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea bermatzen die desgaitasuna duten herritar guztiei. Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua horrela xedatzen du aldarrikatzen duenean herritar guztiak berdinak direla legearen aurrean; eta herritar guzti horiei, besteak beste, gai publikoetan zuzenean parte hartzeko eskubidea aitortzen die (23. artikulua), bai eta zinpekoen epaimahaiaren bidez justizia administrazioan parte hartzeko eskubidea (125. artikulua) ere.

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa 2008ko maiatzaren 3an jarri zen indarrean Espainian, eta honako eskubide hauek jasotzen ditu: berdintasunerako eskubidea, 5. artikuluan; legearen aurreko berdintasunerako eskubidea, 12. artikuluan; justiziara irispidea izateko eskubidea –prozeduren egokitzapena barne, zuzeneko nahiz zeharkako parte hartzaile gisa bete behar dituzten zeregin efektiboak bete ditzaten errazteko–, 13. artikuluan; gai publikoetan parte hartzeko eskubidea, 29. artikuluan.

Desgaitasuna duten pertsona guztiak giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak osotasunez eta berdintasun baldintzetan gozatzen dituztela sustatzea, babestea eta ziurtatzea da nazioarteko tratatu honen helburu aitortua, haren 1. artikulua xedatutakoarekin bat. Horretarako, desgaitasuna duten pertsonen gizartean parte-hartze erabatekoa eta efektibo izan dezaten bermatzea funtsezko elementu bihurtzen da Espainiak hartutako nazioarteko konpromisoak beteko baditu.

Baina, egun dagoen Zinpekoen Epaimahaiaren maiatzaren 22ko 5/1995 Lege Organikoa desgaitasuna duten pertsonen parte hartzeko eskubidea mugatu eta murrizten du, eta ez du haien berdintasuna aitortzen. Egoera horrek Konstituzioan aitortutako oinarrizko eskubideak urratzen ditu, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioan ezarritakoa ez du betetzen.

Adierazitakoarekin koherente izateko, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak estatu kideei exijitzen dielako, besteak beste, ziurtatzeko pertsona horiek justiziara irispidea izango dutela beste guztiak duten baldintza berberetan –prozeduren egokitzapena barne, zuzeneko nahiz zeharkako parte hartzaile gisa bete behar dituzten zereginak bete ditzaten errazteko–, honako erreforma hau bideratu beharra justifikatua gelditzen da.

Konbentzioaren 2. eta 9. artikuluek definitzen dituzte desgaitasuna duten pertsonen komunikazio- eta irisgarritasun-printzipioak. Justiziaren eremuan printzipio horiek aplikatzeak harekin dakar pertsonen ezintasunekin loturiko oztopoak desagerraraztea, hain zuzen, pertsona horien erabateko parte-hartzea eragozten duten oztopoak desagerraraztea.

Justiziaren barruan eremu bereziki adierazgarria da 1978ko Espainiako Konstituzioaren 125. artikulua zinpekoen epaimahaiaren bermatzen duen parte-hartzearekin loturikoa. Zinpekoen Epaimahaiaren maiatzaren 22ko 5/1995 Lege Organikoak arautu zuen eskubide hori, baina Nazio Batuen Konbentzioaren aipatutako printzipioak ikusirik lege horrek jasotako manuetako batzuk berrikusi egin behar dira.

Hain zuzen ere, lege organikoak 8. artikuluan 5. apartatua epaimahaikide izateko betekizunen barruan jasotzen du ezingo dela izan ezintasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkorik. Nabardurarik gabeko adierazpen horrek ez du tokirik uzten desgaitasuna duten pertsonen bizitza zibilean benetako parte-hartzea izan dezaten bermatzeko gizarateak eman behar dizkien laguntzetarako, zeinak manu horretan jaso behar diren.

Artikulu bakarra. *Zinpekoen Epaimahaiaren maiatzaren 22ko 5/1995 Lege Organikoa aldatzea.*

Zinpekoen Epaimahaiaren maiatzaren 22ko 5/1995 Lege Organikoa aldatzen da.

Bat. 8. artikuluan 5. apartatua honela geratzen da idatzita:

«5. Zinpekoen epaimahaiaren zeregina betetzeko nahiko gaitasuna izatea. Desgaitasuna duten pertsonak ezingo dira zinpekoen epaimahaitik baztertuak izan arrazoi horrengatik, eta Justizia Administrazioak haiek behar dituzten laguntzak eman beharko dizkie, bai eta arrazoizko egokitzapenak egin ere, zeregin hori normaltasunez bete ahal izan dezaten.»

Bi. Aldatu egiten da 12. artikuluan 1. zenbakiaren idazkera, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Hirurogeita bost urte baino gehiago dituztenak eta desgaitasuna duten pertsonak.»

Hiru. 20. artikulua honela geratzen da idatzita:

«20. artikulua. *Galde-sortaren itzulketa.*

Galde-sorta jaso eta hurrengo bost egunetan, izendatutako hautagaiek zinpekoen epaimahaiaren buru izango den magistratuari itzuliko diote, postaz eta frankeo ofizialez, behar bezala beteta eta, kasua denean, zeregina normaltasunez bete ahal izateko adierazgarri diren eta oztopo izan daitezkeen desgaitasun-inguruabar pertsonalak jakinarazita; halaber, egoki jotzen duten agiri bidezko justifikazioa erantsiko dute eta zeregina betetzeko behar dituzten laguntza-baliabide eta arrazoizko egokitzapenen eskabidea zehaztuko dute.»

Lau. Hirugarren xedapen gehigarria eranstean da, honela idatzita:

«Hirugarren xedapen gehigarria. *Laguntza-baliabideen hornikuntza.*

Administrazio publiko eskudunek hornituko dituzte Justizia Epaitegietan desgaitasuna duten pertsonen zinpekoen epaimahaikide izateko eskubidea gauza dezaten beharrezko diren laguntza-baliabideak.

Azken xedapenetatik lehena. *Eskumen-titulua.*

Honako lege hau ematen da Konstituzioak 149.1.5.a artikuluan Estatuari esleitzen dion eskumenaren babespean.

Azken xedapenetatik bigarrena. Indarrean jartzea.

Lege organiko hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta bi hilabete igarota jarriko da indarrean.

Beraz,
Lege organiko hau bete eta betearaz dezaten agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2017 abenduaren 13a.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY